

[Iruñea] Detenciones e identificaciones durante una concentración de apoyo a Catalunya

HERRITAR BATASUNA :: 24/09/2017

[Euskara]

Atzo eguerdian, Herritar Batasunak deituta, Kataluniarekin alkartasuna adierazteko herri batzarra eta elkarretaratzea burutzeko asmoz, zenbait pertsona bildu zen Iruñeko Foruen eta Askatasunaren aldarria jasotzen duen monumentuan.

Aldez aurretik, eta inork gonbidatu gabe, hantxe zeuden espainiar poliziaren hiru furgoneta, gure ekitaldea debekatzeko intentzioarekin, hor nonbait.

Ekitaldia oraindik hastekoa zela, gure bi militanteri identifikatzeko eskatu zieten poliziek. Eskakizun horri ezezkoa eman zioten, nafar herritarrak zirela, eta ez zietela inolako autoritaterik onartzen, gure nazioan indar okupatzaile armatuak izateagatik, besteak beste.

Segidan, atxilo eraman zituzten komisaldegira, bertan identifikatzeko asmoz.

Handik ordu betera askatu zituzten, zigor expediente bana jarri ondoren.

(argazkian ageri dena, aipatu expedienteetako bat da).

Herritar Batasunatik, berriz ere argi eta ozen salatu nahi dugu gure nazioaren okupazio militarren adibide hau, etengabeko konkista baten errealitate gordinaren ondorio ukaezina ere dena.

Espainiar Estatuak, euskal herritarron oinarrizko eskubideak urratzen jarraitzen du, horretarako betidanik erabili izan duen moduan, hots, indarkeria eta bortxaz. Eta azken egunotan, oso argi ikusi egin ahal izan dugu Catalanyn ere hala dela.

Inparialismo espainiarraren zapalketa onartu egiten ez dugunontzat, desobedientzia eta borroka dira, uzten diguten bide bakarra askatasuna lortzeko.

Beraz, Nafarroa Osoko herritarroi, antolatze eta borrokan segitzeko deialdia luzatu nahi diegu.

Independentzia eta Sozialismoa lortu arte!

[Castellano]

Ayer, sábado 23 de septiembre, Herritar Batasuna había convocado una asamblea popular y una concentración en el monumento a los fueros y libertades de Iruña, en apoyo a

Catalunya.

Con antelación a la hora fijada, y sin que nadie les hubiera invitado, ya en el lugar se encontraban varias dotaciones de la policía española, al parecer con la intención de no permitir la celebración de los citados actos.

Momentos antes del comienzo, la policía pidió a dos de nuestros militantes que se identificaran. Éstos se negaron a dicho requerimiento, explicándoles, entre otras argumentaciones, que como ciudadanos navarros no reconocían la autoridad de miembros de un cuerpo armado extranjero. Ante lo cual, fueron detenidos y llevados a comisaria para su posterior identificación allí.

Al cabo de una hora, fueron puestos en libertad, no sin antes haberseles notificado la apertura de un expediente sancionador (el que aparece en la foto de abajo).

Desde Herri Batasuna, queremos denunciar esta enésima muestra de la ocupación militar que sufre nuestro país, como consecuencia directa de la conquista continuada a manos de España (y Francia).

España sigue vulnerando los derechos más elementales de nuestro pueblo, mediante la misma manera de siempre, esto es, utilizando la imposición y la violencia. De la misma forma que, últimamente venimos comprobando también en Catalunya.

Para quienes no aceptaremos jamás la imposición del imperialismo español, la desobediencia y la lucha son el único camino que nos queda para poder conseguir la tan preciada libertad que ansiamos.

Así, pues, hacemos un llamamiento a Euzkalerria a que se organice y continúe luchando.

¡Hasta conseguir la Independencia y el Socialismo!

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/irunea-detenciones-e-identificaciones-durante